

Oliver Sacks medikua eta Roald Hoffmann kimikaria lagun minak dira. Egun batean, Hoffmannek, 1981eko Kimikako Nobel saridunak, taula periodiko berezi bat oparitu zion Sacksi, elementu guztien argazkiak zituen taula bat. Eta, taularekin batera, metalezko barra oso astun bat bidali zion. Barra lurrera erori zen, eta lurraren kontra jotzean egin zuen soinuarengatik eta eskuan hartzean nabaritu zuen arengatik, Sacksek azkar ezagutu zuen metal hura: tungstenoa (Elhuyar anaiek wolframio deitu zioten metal hura bera).

Metal hark haurtzaroko oroitzapenak astindu zizkion Sacksi, eta liburu bat idatzi zuen. Sacks, txikitan, metalen zalea zen, eta tungstenozko bonbillak egiten zituen osaba bat zuen. Osaba Tungsteno deitzen zioten. Hark irakatsi zizkion kimikaren sekretuak.


Abiapuntu horretatik hasita, zientziarekin lotutako oroitzapenak kontatzen ditu Oliver Sacksek liburu honetan. Gainera, familiaren historia ere kontatzen digu.

Londresen jaioa da, baina familia, jatorrian, Lituaniakoa du. Sei urte zituela hasi zen Bigarren Mundu Gerra, eta, judutarrak zirenez, beldurra sartu zitzaion. Oliver eta anaia bat umeen barnetegi batera eraman zituzten, Ingalaterraren erdialdera, Londresko bonbardaketetatik urrutira. Barnetegiko egonaldia amesgaiztoa izan zen; gosearen eta diziplinaren gunea zen. Oliver gaztearentzat zientzia eta jakin-mina izan ziren ihesbide psikologiko bakarrak.

Gerra bukatu, eta barnetegi hartatik atera zuten. Baina bizia ez zen asko erraztu. Gerraren

osteko garaiei aurre egin behar izan zien. Etxe inguruko botikan lortzen zituen produktuei esker, kimikarekiko zaletasunari eutsi zion Sacksek. Laborategi amateur bat egin zuen, eta esperimentu asko egin zituen. Kimika bertatik bertara ikasi zuen.

Liburu honetan bildutako oroitzapenak gerra ondorengo urte batzuetaraino iristen dira. Oliver Sacks ez zen kimikari egin. Familiaren tradizioak bultzatuta, medikuntza ikasi zuen, eta neurologoa da. Eta idazlea. Hain zuzen ere, liburuarengatik bihurtu da ospetsu medikuntzaren mundutik kanpo ere. ●



i

El Tío Tungsteno

Oliver Sacks

Anagrama

220 x 140 mm

ISBN: 84-339-6139-4

Jatorrizko izenburua:

Uncle Tungsten

GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Ume kimikari baten

OROITZAPENAK